



**Negu honetan,
ahaztu hotza.**

**ESKAINZA
PAREGABEA**

Naturgas energiarekin, gas naturalez gozatuko duzu etxean.

Orain, erosotasunik handienaz gozatzea inoiz baino errazagoa da. Izan ere, fabrikatzaileekin eta gas-instalatzailerekin lortutako akordioari esker, guk gas naturalerako instalazio osoa egingo dizugu, eta zuk orain arte sekula inork eskaini ez dizkizun baldintzak izango dituzu.

Egundoko prezioan:
3.300€
(BEZ kanpo).

+

KREDIGAS

finantziazio berezia,
instalazioa hileko kuota erosotan
finantzatzeko.

+

570€
ere emango dizugu

Promozio honek 08/12/31ra bitartean iraungo du.

Finantziazio berezi honen interes-tasa 2008rako %5,25ekoa izango da (Credigas). Gaueko tarifa baduzu, edo 65 urtez gorakoa bazara, 570 € jasoko duzu; halakorik ez baduzu, 270 € jasoko duzu. Prezioa gutxi gorabeherakoa da, barruko instalazioa egiteko, kondentsazio-galdara (markaren arabera) eta 6 erradiadore (45 elementu) jartzeko. Promozio estandarren gaineko edozein aldaketa, aparteko aurrekontua izango du. Promozio honetaz baliatzeko, Naturgas Energia Comercializadora, SAUrekin hornikuntza alta egin beharra dago.

902 123 456 Telefono Urdina
www.naturgasenergia.com



**naturgas
energia**

- Kirola: Antxintxika krosa azaroaren 1ean
- Zer berri: KZgunea zabalik

soraluzeko
hamabostekaria **186.** alea
2008ko urriaren 24ean

pil-pilean



Gaztañerre azoka
Baserriaren etorkizuna lantzen



GOL

GOL industriak S.A:
Sagar Erreka, 19 45PK
Telefonoa: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE

SOMABE

**MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE

BABADATORRRR!!!

gaztañerre

AZOKA 08



GAZTAÑERRE 2008 BASERRIAK BIZIRIK BEHAR DITUGU!!

Hitzaldiak eta bideoak Azaroaren 5etik 7ra

Baserría eta gazteak etorkizunari begira + Gazta dastaketa.
Hitzez, emakume baserritarren taldea.
Transgenics.
Euskal Herriko Hazien Sarea.

XIII. Gaztañerre Azoka Azaroaren 8an

- 09:00etan:** XIII. Gaztañerre Azokaren hasiera.
- 11:30ean:** Umeentzat nekazal jolasak, Kukumixo aisialdi taldearen eskutik. Kiroldegian.
Basaklown, kale animazioa.
- 12:00etan:** Euskal Makila Borroka erakustaldia.
Bertsolarien saioa Erregetxean eta Karpan.
Joaldunak kalez kale.
- 12:30ean:** Umeen dantza-antzerkia Erregetxean.
- 13:00etan:** Abesbatzaren saioa Erregetxean.
Jarraian, XIII. Gaztañerre Azokako sari banaketa eta aittitta-amama nagusienei omenaldia.
- 14:30ean:** Babajan herrikoia Karpan.
- 19:00etan:** Imuntzo eta Belokirekin erromeria karpan. Tarteian, Larrain Dantza.


Ogi ikastaroa Azaroaren 15ean


Izena emateko: Pil-pilean Euskara Elkartean

Antolatzaileak:



Udaleko
Ingurumen eta Landa
Garapenerako Saila



**AITOR MORILLO****ENARA AGIRRE**

KRISIARI AURRE EGITEKO GOMENDIOAK

Kaixo Enara! Gaurkuan kontutxo azkar bat! Krisia gora behera yogurfonuan fakturia ordaintzeko larri nabil ta!... Ezetz? Hainbesterako ez dala?... Hala eta guztiz be zergaittik ez gure irakurlieri badaezpadako aholkutxo batzuk eman krisitxo honi aurre egiteko?...ezetz, ez dote-la Intereconomia larregi ikusten! Hona hemen nere proposamenak:

1.- Ikastolako garaietara buelta-
tu eta etxetik ditugun ontzi, paper
eta abarrak artelan bihurtu. Pica_
sso bat nahi dugula gure egongelako
paretean? Ba, igandeko egunkaria zatittu eta
collage polit bat egin. Ming dinastiako pitxa-
rra ere lasai asko lor dezakegu senideek azken
bidaittik ekarritako botijoa margotuz.

2.- Aurreztea da helburua, ezta?
Ba utz ditzagun alde batera luxuak.
Igandeko egunkariarekin jarraituz,
horra hor komunerako papera-
ren ordeko bikaina eta jostun deri-
tzan horien lurrin garestiak erabili
ordez, menditik zehar jasotako lo-
reak alkoholarekin nahastu eta kitto! Ez “bra-
in trainer” ez beste ezer; azkenean adimena
garatzeko modu onena krisialdia!

Amaitzeko aholkurik onena: irribarrea.
Poltsikuak ez, baina bihotzak ederki beteko
dittugu. Oparitu irribarreak, merkeak dira
eta! Nire partetik irribarrerik handiena zu-
retzat, Enara, eta irakurle guztientzat!

Eta zuk zer proposatzen dozu? 🌀

“

**Irribarreak,
bihotzak ederki
betetzeko**

Aitor Morillo

**Patxuak laguneri,
autobuseko
txoferrari...**

Enara Agirre

”

Aupa Mori!!!! Ikusten dotenez zu be kri-
sixa gora eta krisixa behera zabiz. Ez
da harritzekua, komunikabidetan ez dago eta
beste berririk. Ia lagunarteko elkarrizketak
be horren inguruan dabiz. Krisixak guri ge-
hixago ez eragiteko hemen dauzka-
zu beste gomendio batzuk, eta zuen-
tzat be, irakurlientzat, ondo etorri
leizkezenak:

1.- Itxuaria krisi denboretan be
zaindu biharrekua da eta errope-
tan aurreratzeko gomendio on bat
daukagu: erropak erostera jua bi-
harrian lagun edo senidien artian aldatu. Nor-
bere armarixuan aukerak izugarri haziko dira
eta zer esanik ez estilo desberdinak nahastuz
gero!

2.- Zelan bete leike erosketako
saskixa krisi garaixan? Ba, oso
errez: okela, arraina eta frutia (*gero
eta garestixaguak darenak*) jatiari
lagako dotsagu eta arrozan dietia-
ri ekin. Horrekin batera, gorputzan
saneamendu sakonago bat eitteko,
baraualdixak tartekatuko dittugu. Bai gor-
putza eta baita poltsikua saneatzeko modu-
rik onena!

Azkenik edozein krisin aurrian erremedixo-
rik onena: patxuak. Patxuak hartu eta emon
geinze, honek be, irrifarrak bezela, duan di-
ralako; baina emoten dozkuenian urria balio
dabe. Emon ba patxuak bildurrik bare lagu-
neri, bikotiari, etxekueri, baita dendari edo
autobuseko txoferrari!

Gomendixo honek danekin seguro mileuris-
ta soldata triste batekin be hilabete amaierara
heldu leikela. Eta ez ahaztu, patxuak eta irri-
farrak danontzat! 🌀

Goguan hartzeko

Osasuna munduko ondasuna

Euskal Atsotitza.



GUTUNAK

EAJren aipamenari erantzunez

Oraindela egun batzuk, Soralueko EAJ-PNV-k idatzi bat banatu zuen etxez etxe: **SORALUZE URTEBETE GEROAGO**

Suposatzen dugu EAE-EAk osatzen duten Soralueko Udal Gobernuaren jardunaren kritika egin nahi zuela. Tartean, joan zen urtean Gabonetan Plaza Berrian jarri ziren Olentzero eta Mari Dominginen inguruko kritika ere egiten du. Polemika antzua sortuz baina proposamen zehatzik egin gabe.

Polemika sortzeko ahalegin horren aurrean zera adierazi nahi dugu azpian sinatzen dugun bi soralezetarrok:

- Joan zen urtean, Udal Gobernuak eskariari erantzunez, Gabonen irudi euskalduna indartu eta gure kulturaren ikono garrantzitsuak diren Olentzero eta Mari Domingin promozionatzeko ahalegina egin genuen. Ahalegin horren emaitza gehiago ala gutxiago gustatu liteke, estetika hobetu liteke eta beste mila kontu baina ez dugu uste euskaldunon pertsonaien garrantzia eta protagonismoa aldarrikatzeko ahaleginak EAJ-PNV eman duen estiloko erantzunik merezi duenik. Are gutxiago, urtebete pasatu ostean.

- Olentzero eta Mari Domingin herriko plazara ateratzearen helburuak hauek ziren:

- 1.- Gure herriko umeak ilusionatu eta aberastea gure kondaira eta gure kulturarekin.
- 2.- Gizonezko eta emakumezkoen arteko parekidetasuna bultzatzea, Mari Domingi gure Gabon jaiaren errepresentazioan txertatuz.

Horregatik, eta oposizioak Udal Gobernuaren jarduna kritikatzeko zilegitasuna onartzen badugu ere, uste dugu, kasu honetan, Olentzero eta Mari Domingin promozionatzeko ahalegina, "etxola" hitza peioratiboki eta mezipretxuz erabiltzea erabat tokiz kanpo dagoela. Zer esanik ez, gai hau konfrontazio politikorako bandera moduan erabiltzea.

Gure aldetik, hemen amaituko dugu eztabaida. Ez dugu gai hau polemika iturri bihurtzerik nahi. Gai honek ideologiengainetik egon behar duela uste dugu.

Aurtengo Gabonetan ere, herriko umeengan Olentzeroren eta Mari Dominginen majia zabalitzen ahaleginduko gara, ume horien begietako ilusioa eta gurasoen eskerrona izango da gure saria.

"Herri-ezagutzak gordetzen dira sinesmenetan, elezaharretan, ipuinetan, alegietan, herri-medikuntzaren errezetetan, konjuruetan, abestietan, atsotitzetan, igarkizunetan, toponimian, esaeretan, errituetan, ohituretan eta haur-jolasetan. (...) Izan ere, herriak ez du bere pentsaera hitzaren bidez bakarrik adierazten"

J.M. Barandiaran

TERE GUENETXEA eta EGOITZ UNAMUNO

Pasa den alean idatzitakoagaitik, EAJ-PNVko Udal Taldeari erantzunez, 2008ko ekainaren 26an burututako Hirigintza Batzordearen aktan jasotakoaren arabera, ez da inondik inora kiroldegiko obren amaiera data zehazten, soilik "obrak oso motel doazela" aipatzen da. Gainera, gogoratzea, Kiroldegi gainean egiten ari diren lanen ardua eta jarraipena Foru Aldundiaren esku dagoela.

UDAL GOBERNU TALDEA

PIL-PILEAN EUSKARA ELKARTEKO HELBIDE ELEKTRONIKO BERRIAK:

Elkarteko kontuetaarako: koordinazioa@pilpilean.com
Aldizkariko kontuetaarako: aldizkaria@pilpilean.com
Publizitate kontuetaarako: publizitatea@pilpilean.com

eta **ORDUTEGIA**

Astelehenetik - Barixakura 10:00 - 13:30
Martitzen eta Eguenetan 17:00 - 20:00

PIL-PILEAN

Argitaratzailea: Pil-pilean Kultura Elkarte. Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soralue, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04
e-maila: pilpilean@euskalnet.net **Erredakzio burua:** Arianne Unamuno **Erredakzio batzordea:** Leire Iturbe, Enara Agirre, Jon Basmari, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Arianne Unamuno eta Maite Kintanilla **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Diseinua eta maketazioa:** Silvio Vaz **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



SORALUZEKO
UDALA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA

bittartetik



Xabier Iñurrieta Labaien

PLAZENTZIATARRA ETE
"PLAENTXI"? (I)

Pil-Pileanek zutabe hone-tan eta gai librean idazteko aukera emon eta telefonoa esegitzeko astirik izan baino lehen nere baitan trumilka dabizen aingeru(gutxi) eta deabrutxo(mordoa) bata besteari bultzaka hasi dira bakoitzak berea kontatu nahian. Eta hara nun atera dan garaile hizkuntza arloan zorrotz samarra eta zittal punttua duen horietakoa.

Urte asko dira nagusi bati entzun notsala eurak "plazentziatarra" erabiltzen zebela beti euren edo herrikideen buruak aurkezterakoan eta "plaentxi" kanpoan, batez be Eibarren, esaten zoskuela soraluzetarroi.

Orditik aurrera berba arrotza egin jatan "plaentxi" delako hori. Ondo zegoen eibartarrendik entzuteko eurak asmatutakoa zenez, baina guk geuk txapel hori janztea geure hizkeraren porterian golak sartzea iruditzen jatan. "En propia" orain gazteak esaten daben modura.

Orditik aurrera "sofrikarioa" besterik ez dot izan (*Badakizue, zital sa-marra izan da...*). Baina lekuri ez daukadanez nere zotinak zuen aurrean hurrengo alean aurkeztuko dotsueraz (*Jarrantuko du*).

Aurkeztu zeure burua
herrittarreri...

67 urte urte dittut eta Agarre baserrikua naiz, Txurruka auzokua.

Noiztik jeisten zara herrira
saltzera?

Bizitza guztia daroiat herrira jeisten gure produktuak saltzera. Lehenengo amarekin jeisten nintzan baina haura hil ostian, neri tokatu jata errelebua hartzia.

Zegaittik aukeratu dozu
Land Roverrian
saltzia?

Hasieran ama eta bixok astuarekin jeisten ginan. Gero, urtiak aurrera egin ahala Land Roverra erosi genduan eta oso ondo moldatzen naiz. Oso praktikua da produktuak bertan eukitzia nahiz eta garestixagua izan. Gasoliuaren preziuak asko egin dau gora baina merezi dau hola saltzia.

Egunero jeisten zara?

Ez, astian bittan jeisten naiz eta nahikua. Astelehen eta barixakuetan egoten naiz Gilako zubixan barazkixak saltzen.

Bezere asko dittuzu?

Bai, goizetan jendia erosketak egittera irteten da eta herrittar asko etortzen dira nerera. Eskaintza nahiko zabala izatiak laguntzen dosta salmenta haundixak egittera eta oso pozik nago.

((ENTZUTEKUAK))

Felix Telleria

Land Roverrian saltzera jeisten den baserritarra



Hasieran
astuakin
jeisten ginan
herrira

Zer saltzen dozu
bereziki?

Basarriko ortutik etaratako produktuak saltzen dittut eta baita frutia be. Sasoiko produktuak dira gehixen saltzen diranak baina orokorrian jendiak danetik erosten dau. Dendara jeitsi biharrian, neregana hurreratzen dira daukaten eskaintza ikusteko; gustokua badabe, erosi egitten dabe.

Zenbat denbora egitten dozu
Gilako zubixan?

Goizeko 10:00ak aldian jeisten naiz eta 12:00xak arte egoten naiz gutxienez. Egun batzuetan gehixago edo gutxiago be egon izan naiz; salmentiaren arabera. Batzuk enkargua egitten dabe eta horrek gauzak azkartzen eta errezten dostaz. Baina bi ordu normalian egitten dittut bertan eta nahiko azkar pasatzen jata goiza. ☺

SAN ANDRES
ITURGINTZA

Hurgintza, gasa,
eta berogailuak
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea T. 943 75 16 46

Belarrak
Loradenda eta belardenda

Azaroak 1: Santu Guztien
Egunerako eskaerak
telefonoz ere
jasotzen ditugu

T. 943 75 30 11

Nagusiak zaintzeko eta eskulanetarako ikastaroak antolatu ditu Udalak



beharko da Ongizate Sailean. Informazio gehiago izateko Udaletxean galdetu edo **943 75 30 43** telefonora hots egin.

Nagusiak zaintzeko ikastaroa

Gipuzkoako Foru Aldundiarekin batera, Sendia programaren bitartez, urriaren amaierarako mendepokotasuna duten pertsonen zaintzailentzat ikastaroa

Udaleko Osasun eta Gizarte Ongizate Sailak urteroko eskulan tailerra antolatu du azarorako, astelehen, eguazten eta eguenetan, bi orduko saioetan. Izena emateko epea urriaren 27an irekiko da eta urriaren 30a arte egongo da zabalik. Goizeko 11:00etatik 13:00etara apuntatu

antolatu du Osasun eta Gizarte Ongizate Sailak. "Laguntza beharrez dagoena zaintzen duenaren nekea" da aipatutako ikastaroaren izenburua. Ikastaroan parte hartu nahi duten pertsona guztiek, Udaletxean eman beharko dute izena aste honetan bertan. ☺

EAJ, EA, EB, eta Aralarren sinadura bilketa



Auzitegi Konstituzionalak Ibarretxeren kontsulta legea inkonstituzionalizat jo ondoren, urriaren 18an, goiz aldean, EAJ, EA, EB eta Aralar alderdiek sinadura bilketa egin zuten herrian. Horrekin batera, urriaren 25ean Gernikan, Amorebietan, Durangon, Urkiolan, Legutian eta Gasteizen ekimen bat burutuko dute, "hitza hitz" lelopean, eta bertarako gonbidapena zabaldu diete herritarrei.

Esperientzia Eskola herrira hurbilduz

Debabarreneko Esperientzia eskola herritarrei hurbiltzeko helburuz, Debegesak teknikari eta eskola ikasle ohiak eskualdeko herri desberdinetako plazetara hurbilduko dira. Sorluzen, urriaren 30ean izango dira, goizeko 10:00etatik 11:30etara merkatu plazaren inguruan.

Kolektorearen inguruko zalantzak

Urriaren 22an bildu zen Udala herritarrekin kolektorearen obren inguruko zalantzak argitzeko. 20 lagun inguru bildu ziren Udaletxeko Pleno Aretoan beraien kezak plazaratzeko.



Udazkenari aurre egiten

Udazkenarekin batera paisai aldaketa etorri da. Atzean utzi ditugu udako kolore biziak. Belainoak eta tximinietako kearekin hasten da eguna.



Loli Nieves García

Santa Ana, 13 • SORALUZE
Tel. 943 75 14 57 - 646 522 659
E-maila: mdnievas@mgs.es



MENDIZABAL okindegia

Kalebarren 10
T. 943 75 20 91

Balategieta 6
T. 943 75 13 99

SORALUZE

Misio taldea, Haitiri laguntzen



Aurten ere, Misio Taldeak postua jarriko du Gaztañerre Azoka egunean. Haitiko uholdeek sortutako ezbeharrek konpontzeko erabiliko dute bertan jasotako dirua. Eraikinak berreskuratu, kanalizazioak egin eta beste hainbat azpiegitura berreraiki behar dituzte. Goierriko talde batzuekin batera, eraikin materiala eta oinarrizko elikagaiak ere bidaliko dituzte Haitira. Azoka bezperatik hasita jasoko dituzte goxokiak (tartak, pastak...) apaiz etxeko lehenengo pisuan.

Energia berriztagarriak baserrira

Urriaren 30ean amaituko da energia berriztagarriak baserrian sartzeko eta diru laguntzak jasotzeko egin behar den eskaeraren epea. Momentuz 7 lagun inguruk eman dute izena eta beste hirurentzat lekua dago oraindik. Eskaera egiteko Udaletxera jo.

Komun publikoak zabalik

Hilabeteetan itxita egon ondoren pasa den astean ireki zituzten Zubi Nagusiaren azpiko aldean dauden komun publikoak. Goizean goiz zabalduko dituzte eta iluntzeetan itxi.

Kzgunea zabalik dago berriz

Hilabeteetan zerbitzurik eskaini gabe egon ostean, KZgunea zabaldu egin dute berrir. Bertan interneten nabigatu daiteke dohainik eta erabiltzaileek sarean nabigatzeko ordenagailuen azpiegitura bat eta posta elektronikoko kontu bat ere izango dituzte.

Ordutegi malgua

Hemendik aurrera, KZgunea astelehenetik barixakura, urrian, goizeko 9:00etatik 13:00etara egongo da zabalik. Azaroan berriz, arratsalde; 16:00etatik 20:00etara. Bertako arguraduna Aitor Madrid izango da eta ikastaro sorta bat eskainiko dute bertaratuko diren erabiltzaileentzat. 📧



Interneten oinarrizko kurtsoa:

azaroaren 3tik 14ra, astelehenetik barixakura 16:00etatik 18:00etara eta 18:00etatik 20:00etara

Bat-bateko mezularitza:

azaroaren 17an eta 18an 18:00etatik 20:00etara

Etxetik erosi:

azaroaren 20an 18:00etatik 20:00etara

Postal bat bidali:

azaroaren 21ean 18:00etatik 19:00etara

Egunkaria irakurri:

azaroaren 21ean 19:00etatik 20:00etara

Irudi Digitalen Tratamendua I:

azaroaren 24 eta 25ean 18:00etatik 20:00etara

Irudi Digitalen Tratamendua II:

azaroaren 26 eta 27an 18:00etatik 20:00etara.

Informazio gehiago

Baltegieta, 18 behean dagoen Kzgunean edo 943 753045 telefonora deituta.

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**
Hotzian eta beruan jotako tornilluak
Errekalde 21
20590 SORALUZE
T. 943 75 00 06
T. 943 75 16 00
F. 943 75 24 61

Hnos. BENITO ANAIAK 
Etxeko eta Sukaldeko Altzariak
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe
T. y F. 943 75 20 47
Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

GILA TABERNA
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK
GOSARIAK
ETA PINTXO
GOXO GOXUAK
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34 

GURE ZERBITZUAK
• Ortodontzia ikustezina
• Inplanteak
ELIZPE
Hortz Klinika
✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA
ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)
Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67




Euskara eskaparatean

Dendari honek bere mezua euskaraz ematea erabaki du. Euskaldunengana euskaraz zuzentzea erabaki du. Erabaki egokia.



Ezin bizitzera sartu

Logelarik ez du euskarak etxe "polit" horretan, ezta sukalderik, ezta komunik ere. Euskaldunen etxeetan euskara ere bizi behar da. Iragarki honek lehio eta atearak itxi dizkio.



Zer egin?

Lantalan.com

Lanean euskaraz egiteko laguntza

“ *Egumeroko lanian euskaraz jarduteko laguntza lantalan.com-en topatuko dozu* ”

Lantalan.com EMUN kooperatibak sortutako web gunea da. Web gune honetan, euskaraz lan egiteko behar duzun laguntza aurkituko duzu. Lan munduko berriak, enpresetako langileen komentarioak, hiztegiarako linkak, agiri ereduak, euskarazko softwareak... Denetik dago. Gainera lan munduko euskara planen inguruko informazioa emailaz jasotzeko harpidetza zerbitzua ere badu. Sartu lantalan.com-en eta lan egin euskaraz.

HEMEROTEKA

Euskara bihotz zuen idazlea

Gotzon Garate hil da. Euskal filologiako aurreneko ikasketak sortu, 32 liburu idatzi eta 27.000 esaera zahar baino gehiago batu zituen gizona.

Gai askori buruzko iritziak eman zituen Gotzon Garatek BERRIA egunkariko Igandea gehigarriak 2005eko martxoaren 20an argitaratu zuen elkarrizketan. Hona hemen batzuk:

Euskara batua «Euskara batua mesede ikaragarria egin

digula uste dut, elkar ulertzeko, argitaratzeko. Gure problema da gutxi gabela; zenbat eta gehiago argitaratu merkeago aterako litzateke. Hasiko bagina zuberotarrak zubereraz, bizkaitarrak bizkaieraz, bada, oraindik okerrago. Uste dut euskalkiei eutsi egin behar zaiela, eta batuan idazten denean ere, sartu egin behar direla nor bere euskalkiko hitzak eta moldeak. Eta duda kasuetan, etxeko euskarara jo, gurasoek esateko

modua erabili. Ni baserrietara, adibidez, ikastera joaten naiz, haiek euskara zoragarria egingen dutelako, eguzkitik eguzkira euskaraz aritzen direlako».

Independentzia «Uste dut euskaldunok independentzia lortuko bagenu eutsiko geniokeela euskarari. Baina, independentziarik gabe, galdu egingo da. Ni bi gauzatan naiz ezkor samarra: honetan, eta ingurumen kontuetan. Iruditzen zait Lurra hondatzen ari gabela».

Zulotik
begiraIRITZI-ARTIKULU
LABUR BAT

Asteburuak Soraluzen

Soraluzeko asteburuak askotan oso aspergarriak izaten dira ez baldin bagara herritik irtetzen. Hemen, gazteok, ez dugu ezer egiteko ez baitago ez zinerik ezta lokalik ere. Normalean gazteon plana asteburuetan Ezozki futbol zelaira igotzea da partidak ikustera, ez baitago beste egitekorik. Partida ondoren ez dago ezer egiteko eta, normalean, goxokiak erosi eta frontoira joaten gara. Bertan, batzuek futboleak jolasten dute eta, besteok, asper-asper eginda egoten gara harik eta afaltzeko ordua iristen den arte. Larunbat gauen batzuek kalera ateratzen dira, baina gehienak Elgoibarrera joaten dira bertan martxa eta gazte gehiago baitaude.



Aitor eta Jokin

GALDE-ERANTZUN
LABURRAK

Ikasleek zenbati irakasle eta ikasleri hiruzpalau galdera egin dizkiote ikasurte berriari buruz.

HONA HEMEN GALDERAK:

1. Laugarren mailako leihoak margotatuta agertu dira. Ze iruditzen jatzuz leihoko pintadak?
2. Zer moduz kurtso hasiera?
3. Irakasle berrixekin ondo?
4. Egin komentario bat ikastetxeari buruz.



Gotzon

- Pixkat gaizki itxen dabelako, zatarra.
- Eskola hau zatarragua da bestia baino ta lehen mailako gelak kutriak dira.
- Bai, baina aurreko urtiak dira suabienak, aurtengua gogorragua.
- Eskola berrixagua itxia eta klasiak hobeto jartzia.

ERANTZUNAK

Ana Elena

- Ez dakala zentzurik, argitasuna kentzen dabe. Zein izango zan graziosua? Ez dosta graziaz itten.
- Ondo hasi gara, ondo, gogor eta langile.
- Bai oso ondo.
- Lehen mailako ikasliak mobiduak dira.



Begoña

- Ondo margotuta egongo balira ez ziren gaizki egongo. Neri pertsonalki gustatuko litzaidake ikustea apaingarriak balira. Daudenak ez dira artistikoak.
- Pilatuta beti bezala, ikasturteko planak eta programak aurkeztu behar dira eta. Bestela, ikasleekin ondo.
- Bai, ondo, jende gaztea etortzea institutura ondo datorkigu ideia berriekin eta gogo handiekin etortzen direlako.
- Ea noiz berritzen diguten eskola!



*Nekazaritza
indartzeko
irtenbideak
bilatuko dira*

Haize berriak baserri girora

Nekazaritzak mundu osoan egin du atzeraka, eta gure herrian nabarmena izan da azken hamarkadetako joera. Eutsi eta bultzada bat emate aldera, hausnarketarako eta esperientziak trukatzeko aukera emango dute Gaztañerre Azokarekin batera antolatuko diren hitzaldi eta emanaldiek.

*Emakumeak
eta gazteak,
protagonista
nagusi*

Baserritar gazteak eredu Saiatzen denak lortzen du bere bidea egitea. Horren adierazgarri, nekazaritzatik bizi diren zenbait gaztek beren proiektuen berri emango dute; Itziar Arkonada (Uztaro kooperatiba), Josu Gil (artzai eibartarra) eta Iñaki Ansola “Mauxitxa” (gaztagilea) izango dira gonbidatu nagusiak. Nekazaritza ekologikoaz, produktuak merkaturatzeko eta gizarteratzeko moduez eta proiektu berriak hasteko oztopo eta aukerez hausnartzeko aukera izango da.

Emakume baserritarren arteko topaketa

Hitzez emakume baserritarren elkarrekin emakumeak landa eremuan bizi duen egoera hizpide ipiniko du, bereziki osasun arloa landuz hitzaldi honetan. Herriko emakume baserritarrei gonbitea

eginez, elkarrekintza-harremana bultzatzeko eta norbanako gisa sendotzen laguntzeko ahalegina egingo dute, osasunaren edo oreka bio-psiko-sozialaren inguruko gaien kontzientzia- eta heziketa bultzatuta.

Elkarrekin osatzen duten kideak baserrian bizi dira. Baserrietako emakumeek arazoak barnean gordetzea izan omen da beti ohikoena eta horri aurre egin nahi diote.

Transgenikoak eta bertakoak, aurrez aurre

Hazien merkaturia ia osorik hartu dute industria handiek eta horrela, genetikoki manipulatuak haziak erostera behartzen dituzte nekazariak. Ia zaratarik atera gabe, Euskal Herrira ere iritsi dira hazi eraldatuak. “Transgenics” bideoan, gaiaren inguruko itzalak argitara aterako dira, arazoaren erroetara joz.

Hala ere, Euskal Herrian gero eta gehiago dira hemengo haziak lortzeko eta zabaltzeko lanean dabiltzan baserritarrak. Euskal Herriko Hazien Sarea sortu dute, helburu horrekin. Euskal Herrian tradizionalki erabili izan diren barazki barietateak ezagutzera ematea eta hazien identifikazioa eta zabalpenaren bitartez erabilpena ziurtatzea du asmo Euskal Herriko Hazien Sarea. Beren jardueraren eta honek emandako emaitzen berri ematera etorriko dira.

EGITARAUA:

Azaroak 5, eguaztena

Mahai ingurua: Baserría eta gazteak etorkizunari begira. + Gazta dastaketa.

19:30ean Karpan.

Azaroak 6, eguena

Hitzaldia: Hitzez, emakume baserritarren taldea.

16:00etan Udaletxeko Saio Aretoan.

“Transgenics” bideoa.

19:00etan Karpan.

Azaroak 7, barixakua

Hitzaldia: Euskal Herriko Hazi Sarea.

19:00etan Karpan.



Ezohikoa den bidea: autogestia

ITZIAR ARCONADA
Uztaro Barazki
Kooperatibako partaidea

Zein antolamendutan oinarritzen zarete?

Guk baratzean lantzen duguna ekologikoa da eta hori lortzeko gaur egungo gizartean ezohikoa den bidea erabiltzen dugu, autogestia. Hau lortzeko bidean, produktua nundik datorren eta zein egoeratan landua izan den jakin nahi dugu. Erabakiak denon artean hartzen ditugu. Egungo ekoizpen sistema globalizatuaren alternatiba moduan sortu zen Uztaro kooperatiba.



Artalde handia eta artzai gutxi

JOSU GIL
Artzai eibartarra

Nola ikusten duzu artzantzaren etorkizuna?

Gaur egungo joerak dibertsifikazioa galtzera garamatza. Lehen baserrietan animalia bat baino gehiago izatea zen aurrera egiteko bidea. Animalia bakarra eta kantitate handian izatea da egungo

OGI IKASTAROA

Baserriko labe tradizionalean ogia nola egiten den ezagutzeko aukeraz gain, norberak bere masa eta ogia egingo du.

Noiz: Azaroaren 15ean, zapatua (goizez)
Non: Kirueta baserrian
Izen ematea: Pil-pilean (943 75 13 04 edo koordinazioa@pilpilean.com)
Gehienez, 8 lagunentzat izango da.

joera. Artalde handia eta artzai gutxi; hau da nik ikusten dudana. Azken finean indarrean dagoen nekazal politikak horretara eramaten gaitu. Ez dute baserri txikien aldeko apusturik egin.



Emakume baserritarra, beti lanerako prest

ELI MANTEROLA
Hitzez, baserriko emakumeen elkarteko kidea

Zein da emakumeak baserrian betetzen duen funtzioa?

Baserriko emakumea, urteak joan eta urteak etorri, lanean jarraitzeko prest dago. Eta horrek eragina du bere osasunean, bere kontra joka dezake eta. Emakumeak baserrian funtzio asko izan ditu: umeen hezitzaile, gaixo eta helduen zaindaria, nekazari, abeltzain, gestiolari eta abar. Baina batez ere amatasunerako ahalmena izatea, seme bat edukitzea, maiorazgo bat aseguratzea.

IÑAKI ANSOLA
Mausitxa baserriko gaztagilea


Asko aldatu da baserriko ustiapen modua?

Nire ezagutzan antzera, ez da asko aldatu. Baina etxean, nire aurrekoek esaten dutenarekin konparatuta, duela 40 bat urtetakoak, asko



Ezin gara teknologia-ekin itsutu

aldatu da artzantza eta bereziki gazta egiteko modua. Gazta egiteko erabiltzen diren oinarriko elementuak esnea, gatzagia eta gatza ez dira aldatu baina bai prozesua bera. Lehen iritzi egiten zena, egun teknologia dela eta, prozesua askoz ere kontrolatuago egiten da. Baina ezin gara teknologiarekin itsutu eta hauek ordaintzeko baserria hipotekatu. ☺



IRUÑERA!!!

Joan zen ostiralean, hilak 17, Iruñera joan ginen 5. eta 6. mailako ikasleok hiria ezagutzera eta Planetariuma bisitatzera. Heldu orduko, "La Ciudadela"n hamarretakoa jan genuen. Oso leku polita zen parke hura eta primeran pasatu genuen.

Beranduago "La Taconera" parkea ikustera joan ginen. Animalia asko zegoen, ahateak gehienak. Handik, Udaletxera joan ginen. Argazki batzuk egin ondoren, "entzierroa" egin genuen... zezenik gabe, noski: Mercaderes eta Estafeta kaleetan zehar, zezen plazara iritsi arte. Gazteluko Plaza ere bisitatu genuen. Plaza ederra, benetan!


Azkenik, Planetariumera joan ginen. Oso polita eta harrigarria zen! Amama Lurrak erakutsi zigun mundua nolakoa zen eta nola sortu zen bizitza gure planetan. Jarraian konstelazioak eta izar garrantzitsuenak ezagutu genituen. Askok ikasi genuen egun hartan!

Handik atera ginenean, hurbil dagoen Yamagutxi parkean bapoz bazkaldu eta jolasten geundenean Osasunako autobusa pasatu zen eta agurtu gintuen. Pixka bat gehiago jolastu, eta... etxera!



**Zein polita
den Iruñea
eta zeinen
ondo pasatu
genuen!**





Jangelan bazkaltzen dozu?

Zeinen bazkaria gustatzen jatzu?

Elena Lopez, 6 urte



Bai jangelan geratzen naiz bazkaltzen eta asko gustatzen jata. Nahixago dot jangelako bazkarixa baina amak egindakua be oso ona egoten da, amamana baino hobia.

Sergio Montes, 6 urte



Ez, ez dot bazkaltzen jangelan eta nahixago dot etxian bazkaltzia. Orokorrian amak prestatzen dabena jaten dot baina amaman lentejak asko gustatzen jataz.

Jangelan geratzen naiz bazkaltzen eta asko gustatzen jata ematen diguten janarixa. Amak egindakua nahixago dot baina jangelan lagunekin bazkaltzia daka ona. Haragixa patatekin asko gustatzen jata.

Joseba Jim, 6 urte




Nahixago dot amak prestatzen dabean janarixa, horregaittik ez naiz geratzen. Makarroiak jatia da gehien gustatzen jatana, batez be amak egiten dittuanak.

Irene Etxezarreta, 6 urte



GU RUTZEGRAMA

- * 1- Zikinkeria botatzeko erabiltzen dugu.
- * 2- Trafikoa markatzen du.
- * 3- Hosto asko ditu eta enbor bat.
- * 4- Ahateak bainatzen diren tokia.
- * 5- San Blas egunean joaten gara.



ZER TRISTEN DOTSAZU?

Baserrian bizitzeko aukera bazenu, gustatuko litzaizuke?

Baserritar askok beren bizimidua politta bezain gogorra dala esaten dabe baina aukeran, ez dabe kaletarren bibimodua nahi. Kaletarrek aldiz, honako pentsatzen dute:

CRISTINA LOPE



Ez, ez jatan asko gustauko baserri baten bizitzia. Ni oso kaletarra naiz eta mendia ez jata asko gustatzen. Nahiago dut kalean sortzen den giroa bizitzia eta zarata piskat egotea baserriko bakardadia baino.

AITOR MADRID

KZguneko langilea



Ez dot pentsau inoiz baina zergatik ez! Bai, biziko nintzake baserri baten, baina baserriataz bizitzia zaila be ikusten dot, politta dan aldi berian. Presupuesto handia baina, suposatzen dau horrek.

BEGOÑA ALBERDI

Etxekoandrea



Politta, bai oso politta dala esango neban baina oso gogorra be. Naihago dot kaleko bizimodua, dana gertuago dagolako eta bakardadia ez jatalako asko gustatzen. Iluntziak eta neguak, baserrian zailak dirala pentsatzen dot.

JESUS LARRAÑAGA

Jubilatua



Ez, lehenau be bizi izan nintzan eta dauaneko ez dakat sasoia horretarako. Gogorra dala badakit ze baserrian jaio nintzan eta hezkundu ostian herrira jeitsi ginan.

KOMIKIXA



Diserriua eta Sormena

Poligono Amillaga, nº 5
Tlf.: 943 76 99 85
20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Fax.: 943 76 05 17

Altzairuen fabrikazioa:

- Bainugelak
- Sukaldeak
- Horma-armairuak
- Barruko altzairuak

Javier Alonso Zelaeta
MEDIKU ESTOMATOLOGOA
K.Z. 20.000.434

Jon Azkorbebeitia Txurruka
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13

**Abenduaren 19an
Revelphone Elgetan**

Revelphone taldea abenduaren 19an arituko da zuzenean, Barua Banda (Eskoriatza), Tuesday Evening (Durango) eta The Motherfuckers (Arrasate) taldeekin batera. Kontzertu guztiak Elgetako Espaloia Kafe Antzokian izango dira, gabeko 22:30ean. Sarrerak, Goienako egoitzetan, Espaloian edo 943 250505 telefonora deituta eros daitezke.

**Gaztañerretako
babajanerako tiketak
salgai daude**



Gaztañerre Azokan urtero izaten den babajanera joan nahi dutenek tiketak eskuratzeko aukera dute dagoeneko. Babak sakramentuekin, edaria, postrea eta kafea emango dira bazkaritan. Iratxo goxodendan, Gila, Gaztelupe eta Arrano tabernetan daude salgai. 8 euroko prezioa izango du azaroaren 3a baino lehen erosita, eta 10 euro azaroaren 3tik aurrera erosiz gero.

Galtzagorri Txaranga eta Musika Eskolakoak Iparraldean

Urriaren 12an, Lapurdi eta Behe Nafarroan izan ziren musikariak. Ildefonso Perez soraluzetarrak gonbidatuta, musika eskolako 31 lagun izan ziren Donapaleun ospatu zen Trikitixa Egunean. Kalejiran ibili ziren bertako trikitalariekin eta bapo jan eta dantza egin ondoren Soraluzera bueltatu ziren arratsaldeko 19:30ean.

Galtzagorri Txaranga Arrangoitzen urtero egiten den Mutxikoen egunean bazkalaurreko izan zen. Dantza emanaldiak, bazkari herrikoia eta erromeria izan ziren. 🍷



Haragi gisatu txapelketa

Urriaren 16an, Itxaropenan, haragi gisatua prestatzeko lehiaketa antolatu zuten. Merkatu plazaren lehenengo pisuan, goiz partean 20 lagun inguru bildu eta irabazleak, Ilenia eta Maria Luisa izan ziren.

ARMENDIA
JATETXEA

Ezoz Auzoa 11
20590 Soraluze
T. 943 75 10 02

SUKALDARITZA
TRADIZIONALA

Juan Mari
arraindegia
Eguneroko
arraina
eta konjelatuak

Merkatu Plaza
20590 Soraluze
T. 943 75 24 40

Soraluzetik Bergararainoko Antxintxika Krosa azaroaren leian egingo da

Behobia-Donostia baino astebe lehenago izango da Antxintxika Krosa, bertan parte hartu nahi dutenei prestaketa lanak egiten laguntzeko. Aurtengo edizioak 10 Kmko ibilbidea izaten jarraituko du baina berrikuntza batzuk izango ditu.

Arratsaldeko 17:00etan irtengo da lasterketa Soraluzeko Plaza Zaharretik eta Bergarako Zubi Berritik igaro ostean, Bide Gorritik egingo da korrikaldia, amaiera Bergarako Frontoian izanez.

Adin desberdinak lehia

Kategoria desberdinek parte hartu ahal dute; alebinek 1600 metro egin beharko dituzte, DBHko lehen eta bigarren mailakoek 2400 metro eta hirugarren eta laugarren mailakoek, berriz, 3200 metro. Berrikuntzen artean, lagun artean lehiatzeko aukera dago. Lagun talde bakoitzeko hiru kidek eman behar dute izena eta denak iritsi behar dira helmugara froga ontzat jotzeko. 🏃



Judokoek ere hasi dute ikasturte berria



12umek inguru eman dute izena Judoko eskolatan. Martitzen eta eguenetan 18:30etik 19:30era entrenatzen dute. Aurten ez da nagusien taldea sortu, asistentzia faltagatik baina izena eman nahi duenak aukera du oraindik. Judoa, irailetik ekainera bitartean egiten da eta nahi duenak tarte horretan eman dezake izena Ezoziko bideko lokaletan. 🏪

EMAITZAK

PILOTA

Olaizola I – Begino 9
Berazaluze VIII – Laskurain 22

Titin III – Laskurain 22
Mtz de Irujo – Eulate 21

FUTBOLA

Sora (erreg. N.) – Elgoibar C.D. 5-1
Sora (erreg. M.) – Segura Goierri K.E. 1-1
Ilintxa S.D. – Sora (jub.) 8-0
Sora (kad.) – Aloña Mendi K.E. 2-0
Sora (erre. N.) – Mondragon 3-1

AGENDA

PILOTA

Zapateria 25, 17:00etan
Oreretan
Titin III – Pascual
Mtz de Irujo – Laskurain

Zapateria 25, 10:30ean

Añorgan
Jauregi – Tolosa

FUTBOLA

Domeka 26, 15:30etan Azkoagainen
Aloña-Mendi K.E.-Sora (Erreg.N.)
Zapateria 25, 15:30etan Ipintzan
Bergara K.E.-Sora (Erreg.M.)
Zapateria 25, 11:30etan Ezozin
Sora (Jub)-Bergara K.E.
Zapateria 25, 10:00etan Almenen
Arizmendi K.E.-Sora (Kad.)

ARRANO
taberna
etorri eta gozatu
giro euskalduna eta sanua
etxera

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Soraluze
T. 943 75 12 49

GAZTELUPE
taberna
tel: 943 75 20 81

Ion Murgizu Pinturak
MARGOKETA OROKORREAN
Empapelatuak
Estukoak
Fatxadak
Eskilarak eta patioak
Pintura industrialak
T. 943 75 1324 M. 652 777 030
Ezoziko etorbidea 24, 2 Behea

ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: E. Etxeberria

BASERRIKO LANEI EKITTEKO PREST

Argazkia Ipiñarrieta baserrian ateratakua da. Eskumako aldiari agertzen dan emakumia Raimunda zan, Bolia tabernan jabia. Berari be “Bolia” moduan ezagutzen jakon herrixan, bere gorpuzkeriari erreferentzia eitten.

Bolia tabernia, zaharra geratu zan eta mueblerixa bat jarri zeben gero. Gaur egun, Bolia taberna deitzen da berriz be; lehenago izan zanan oroigarri moduan itxuria. 🌀



ANTONINO UCIN ARTOLAZABAL “PAKO”

2008KO URRIAREN 15EAN HIL ZEN,
86 URTE ZITUELA.
GOIAN BEGO

Eskerrak eman nahi dizkizuegu, familia osoaren partetik, momentu gogorretan gertu egon zareten guztioi, baina bereziki kalean-eta berarengana azken urteetan hurbildu zareten guztioi eta erakutsi duzuen alaitasun eta laguntasunagatik.

Bizirik iraun beza denon oroimen eta bihotzean.